



## EKONOMIA ITUNAREN IRAKASKUNTZAREN EBALUAZIOA UNIBERTSITATE-AURREKO EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAN. EZAGUTZEN AL DUTE EUSKAL GAZTEEK FORU ZERGA-SISTEMA?

JON GARRO (\*)

### Laburpena

Ekonomia Ituna euskal autogobernuaren eta bere egitura instituzionalaren ezaugarri adierazgarrietako bat da. Hala ere, euskal herritarrek horren gaineko ezjakintasun orokorra dutela erakutsi dute orain arte egindako azterlan demoskopikoek. Artikulu honen helburuak bi dira: unibertsitate-aurreko euskal hezkuntza-sistemak Ekonomia Itunaren irakaskuntzan duen jarduna ebaluatzea eta ikasleek lortutako ezagutza-maila modu enpirikoan egiaztatzea. Horretarako, Ituna Agiritegiak egindako Ituna 2021 inkesta erabiliko dugu iturri nagusi gisa. Artikuluak ondorioztatzen duenez, euskal zerga-sistema irakasteko hainbat ekimen eta tresna egon arren indarrean, Ekonomia Itunari buruzko ezagutza-maila mugatua lortzen dute ikasleek unibertsitate-aurreko ikasketetan. Hala ere, horrek ez du eragozten aldi berean foru-autogobernu fiskalaren aldeko iritzia izatea.

Hitz gakoak: Euskal Autonomia Erkidegoa, Ekonomia Ituna, autogobernua, hezkuntza tributarioa, kontzientzia fiskala, iritzi publikoa.

### Abstract

El Concierto Económico representa una de las mayores particularidades del autogobierno vasco y su estructura institucional. No obstante, los estudios demoscópicos realizados hasta la fecha han constatado un desconocimiento generalizado al respecto entre la ciudadanía vasca. El objetivo de este artículo es evaluar el desempeño del sistema educativo pre-universitario vasco en la enseñanza del Concierto Económico y comprobar de manera empírica el grado de conocimiento alcanzado por el alumnado y la opinión que tienen sobre el mismo. Para ello se emplearán como fuente principal los resultados de la Encuesta Ituna 2021 realizada por el Centro Ituna. El artículo concluye que, a pesar de existir una variedad de iniciativas e implementar distintos programas destinados a la enseñanza del sistema fiscal vasco, el alumnado alcanza un nivel de conocimiento limitado sobre el Concierto Económico durante la educación pre-universitaria. No obstante, esto no imposibilita que al mismo tiempo mantengan una opinión favorable del autogobierno fiscal foral.

Palabras clave: Comunidad Autónoma Vasca, Concierto Económico, Autogobierno, Educación tributaria, Conciencia fiscal, Opinión pública.

(\*) Ekonomia Itunaren eta Foru Ogasunen Ikerketarako Agiritegia (UPV/EHU)

## 1. SARRERA

**E**konomia Ituna 1878az geroztik lurralde historikoaren eta Espainiako Estatuaren arteko harreman finantzario eta fiskalak arautzen dituen tresna da<sup>1</sup>. Gaur egun, onarpen juridiko zabala du; besteak beste, Espainiako Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian, EAEko Autonomia Estatuaren 41.1 artikuluan eta 1981eko Ekonomia Itunaren Legean dago jasota. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak ere babestu egiten du zerga-araubide forala<sup>2</sup>.

Ekonomia Itunak, gainera, federalismo fiskalerako eredu berezi bat eratzen du nazioartean, asimetrikoa delako eta lurralde historikoei botere fiskal eta finantzario zabala ematen dielako. Foru-ogasunek ogasun integral gisa funtzionatzen dute, eta European botere fiskal eta finantzario handiena duten estatuaz beherako erakundearen artean daude<sup>3</sup>. Foru-sistema historikoaren eguneratze hori euskal autogobernu-sistemaren oinarri nagusietako bat da, EAEko ongizate-estatuari eusteko funtsezko baliabidea.

Ekonomia Itunak eragin nabarmena duen arren euskal herritarren bizi-kalitatean, euskal iritzi publikoak ezjakintasun handia du sistema horren printzipioen eta funtzionamenduaren inguruan. Hala egiaztatzen dute azken bi hamarkadetan euskal tributuzko sistemaren gaineko ezagutzari eta iritziari buruz egin diren ikerketa soziologikoei:

- Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea: Euskadiko Kontzertu Ekonomikoari buruzko herritarren ezagutza eta iritziak, 2008.
- Urrutia, Víctor: El Concierto Económico en la opinión pública, Haciendas forales: 30 años de Concierto Económico y perspectivas de futuro, Ad Concordiam, 2011.
- EITB Focus: Euskadiko Kontzertu Ekonomikoari buruzko herritarren ezagutza eta iritziak,

<sup>1</sup> 1937 eta 1981 bitartean, Bizkaian eta Gipuzkoan indargabetuta egon zen Ekonomia Ituna. Erregimen frankistak "probintzia traidoreak" izateagatik ezartako zigorraren ondorioz.

<sup>2</sup> Alonso, I. (2010). El concierto económico en Europa: El equilibrio entre la autonomía tributaria foral y la construcción de la Europa del futuro. IVAP.

<sup>3</sup> Erkoreka, M. (2018). The Basque and Swiss fiscal systems building processes as a source of lessons for the European integration process. International perspectives on fiscal federalism: the Basque tax system. Center for Basque Studies - University of Nevada.

2017ko martxoa.

Aurretiazko azterlan horien ildoari jarraituz, Ekonomia Itunaren eta Foru Ogasunen Ikerketarako Agiritegiak bereziki Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) ikasleei zuzendutako inkesta bat egin du, EAEko zerga-sistemaren gainean dituzten ezagutza-maila eta iritzia aztertzeko, eta euskal hezkuntza-sistemak Ekonomia Itunari buruz ematen duen prestakuntzaren diagnostikoa egiteko. Horrelako ebaluazio-prozesuak funtsezkoak dira hezkuntza-prozesuaren etengabeko hobekuntza sustatzeko.

Guztira 1.686 inkesta presentzial egin ziren 2021-2022 ikasturteko lehen lauhilekoan zehar, graduko lehen eta laugarren mailako ikasleen artean, UPV/EHUren hiru campusetako (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) bost fakultatetan: Ekonomia eta Enpresa, Zuzenbidea, Gizarte eta Komunikazio Zientziak, Hezkuntza, eta Letrak.

Zentzu horretan, artikulua honen helburu zehatza unibertsitate-aurreko euskal hezkuntza-sistemak (Oinarriko Hezkuntza eta Batxilergoa) Ekonomia Itunaren gainean ematen duen irakaskuntzaren emaitzak ebaluatzea izango da. Ituna 2021 inkesta egin duten graduko lehen mailako ikasleen emaitzak aintzat hartuz –Batxilergoa bukatu berri dutenak, hain zuzen ere–, enpirikoki aztertu ahal izango dugu euskal gazteek unibertsitate-garaia hasi aurretik Ekonomia Itunari buruz lortzen duten ezagutza-maila. Emaitza horiek, gainera, ikasleek izandako hezkuntza-ibilbidearen ezaugarrien arabera konparatuko ditugu, hala nola jaioterria, hizkuntza-eredua eta ikaste-txearen titulartasuna (publikoa, itundua edo pribatua). Testuinguruarekiko hurbilpen sakonagoa egiteko helburuarekin, Ituna 2021 inkestan iritzia-rekin lotuta zeuden hainbat galdera ere aztertuko ditugu.

Ikerketa lau ataletan egituratuko da. Lehenik eta behin, zerga-hezkuntzari eta horrek gazteriaren prestakuntza-prozesuan duen garrantziari buruzko marko teorikoa planteatuko dugu. Bigarrenik, euskal hezkuntza-sistemaren Oinarriko Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumek Ekonomia Itunari eskainitako eduki espezifikoak aztertuko dugu, kuantitatiboki. Hirugarrenik, Ituna 2021 inkestaren metodologia eta emaitzak aztertuko ditugu, modu enpirikoan egiaztatzeko zein den euskal gazteek euskal tributuzko sistemaren gainean

lortzen duten ezagutza-maila unibertsitate-aurerako hezkuntza bukatzerakoan. Atal horretan, ikasleen ezagutza-maila eta izandako hezkuntza-ibilbidearen aldagaien arteko konparaketa egingo dugu halaber. Azkenik, ikerketaren emaitza nagusiak laburbildu, eta ondorio nagusiak eskainiko ditugu.

## 2. TRIBUTU-HEZKUNTZAREN ERABILGARRITASUNA ZERGA-IRUZURAREN AURKA BORROKATZEKO TRESNA GISA

Kontzientzia zibiko-fiskala ez da naturala; gizarte-produktua da, eta, beraz, ikasi egiten da. Izan ere, betearazpen fiskala herritartasun-kontu bat da, arau fiskalak gizabanako helduek gizarte demokratiko batean bete behar dituzten arau sozialen multzoaren parte baitira<sup>4</sup>. Estatu garrantuetako ogasunak ohartu dira zergadunen aurrean irudi errepresibo eta formalista bat proiektatzeko ez duela emaitza onik ematen. Haatik, ondorioztatu dute tributuek hezkuntza tresna eraginkorragoa dela epe luzean iruzurraren aurka borrokatzeko eta zergen ordaintzea boluntarioa sustatzeko<sup>5</sup>.

Herritarrak gaztetatik hezi behar dira, beren zergak ordaintzeko beharra ulertzen lagunduz eta zerga-kontzientzia sortuz. Helburu hori lortzeko, borondatezko diru-bilketa handitzeaz gain, proiektzioa izango du kontrolaren beraren gainean ere, zerga-administrazioari aukera emango baitio bere ahaleginak arrisku handiko eremuetara bideratzeko, non ez-betetzea guztiz nahita egiten den<sup>6</sup>.

Hala ere, herritar gehienak inolako zerga-prestakuntzarik jaso gabe iristen dira heldutasunera eta lan-mundura. Horregatik, fiskalitatearen gaineko ikuspuntu utilitarista daukate oro har, zergen ordaintzea jasotako prestazio eta zerbitzu publikoen ordaintzeara mugatuz, eta zergek duten funtzio solidario eta birbanatzailea ahaztuz. Azken batean, justiziaren eta elkartasunaren balio etikoaren gaineko sozializazio desegoki baten arazoa da. Helduen zerga-jokabidea desberdina izango litzateke haurrak eta gazteak zerga-egi-

tatean behar bezala heziko balira<sup>7</sup>.

Zentzu horretan, nazioarteko erakunde espezializatuek kultura zibiko-tributario handiagoaren eta zerga-sistemaren funtzionamendu eraginkorragoaren artean dagoen erlazio zuzena ikertu eta egiaztatu dute. Administrazio Fiskalaren Europako Erakundeak (ingeleserazko sigletan, IOTA), 2008an argitaratutako Fiscal Education for the Young (Gazteentzako Hezkuntza Fiskala) ikerlanean, zerga-administrazioen eta herritarren arteko harremana aldatzeko beharra adierazi zuen. Institutio fiskalen eta zerga-sistemaren funtzionamendua modu ulerkorrean azaldu eta hedatzea beharrezkoa da tributuek ordaintzearekin eta zerbitzu publikoak mantentzearekin konprometitutako gizarteak eraiki ahal izateko.

Gai honen inguruan nazioarteko instituzio batek argitaratutako azkenengo ikerketa nabarmengarriena Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearena da (ELGA; ingeleserazko sigletan, OECD): 2021ean, Building Tax Culture, Compliance and Citizenship (Zerga-kultura, zerga-betearazpena eta herritarrak sustatuz) txostena argitaratu zuen. Horren arabera, heziketa zibiko-tributarioa tresna eraginkorra izan daiteke kultura fiskala eta zerga-betetzea sustatzeko, herritarrek uler dezaten zergek eragina dutela beren egunerokotasunean. Era berean, zerga-sistema hobeto ezagutzean eta zerga-etika handiagoa izatean, zergadunak kontzientziatuago egongo dira zerga-ihesaren eta -iruzurraren aurka.

Etika fiskala indartu egiten da adinarekin, eta adinekoek oro har gutxiago justifikatzen dute zerga-ihesa. Horrek erakusten du onuragarria izan daitekeela gai fisikaletan gaztetatik hezteko eta belaunaldi gazteenak zergak ordaintzeko beharrezko kontzientziatzea. Horrela, derrigorrezko lehen eta bigarren hezkuntzako ikasketen planetan zerga-hezkuntzari buruzko edukiak txertatzeko belaunaldi osoetara eta etorkizuneko zergadun (ia) guztietara iristea ahalbidetu dezake. Emaitza eraginkorragoak lortu ahal izateko, gomendagarriak dira zerga-administrazioen kolaborazioa eta inplikazioa; material didaktiko zehatzak eginez edota irakasleak gaituz, adibidez. Hala ere, heziketa zibiko-tributarioa epe luzearako estrategia bat da, eta ez da lortzen aldizkako ekimenekin.

4 Delgado, M. L., et al. (2005). *La educación fiscal en España. Documentos de trabajo* (29). Instituto de Estudios Fiscales. 1-34. or.

5 Goenaga, M. (2016). *La educación fiscal como herramienta de prevención del fraude fiscal. Presupuesto y gasto público* (82). 9-22. or.

6 Pereira, L. (2010). *Experiencia internacional sobre medidas de reorganización de las Administraciones Tributarias en la lucha contra el fraude fiscal. Crónica tributaria* (134). 143-178. or.

7 Delgado, M. L. (2009). *¿Por qué una educación fiscal? La experiencia educativa de la Administración Tributaria Española*, (Coord. Fernando Díaz Yubero). *Documentos de trabajo* (13). Instituto de Estudios Fiscales. 11-18. or.

Instituzioen konpromiso iraunkorra behar da etorkizunean emaitzak hauteman ahal izateko<sup>8</sup>.

### 3. EKONOMIA ITUNA EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN IRAKASKUNTZA-PLANETAN

Oro har, zerga-prestakuntzarako proposamenak tributuak bereiztera eta horiek gizartean betetzen duten eginkizun birbanatzailea ezagutzera bideratuta daude batez ere. Hala ere, horrelako ekimenen edukia zerga-araubide bakoitzaren instituzio-egituraren irakaskuntzarekin ere osatu beharko litzateke. Herritarrek jakin behar lukete zein erakundeak duten zergak biltzeko ardura eta nola banatzen diren gero baliabide horiek, eta identifikatu behar lukete zein instituzioren aurrean planteatu behar dituzten zerga-politikako eskaerak eta gardentasun-eskakizunak. Horrek kontzientzia demokratikoa eta herritartasunaren kalitatea indartzea ahalbideratuko luke.

Ildo horretan, EAEn ematen den zerga-hezkuntza ezin da Ekonomia Itunaren testuingurutik bereizi, euskal zerga-sistemaren berezitasun nagusia baita. Euskal Herriko historia hurbila eta EAeko barne-funtzionamendu instituzionala ulertzeko duen balioaz harago, euskal gazteek hezkuntza-aldian ikasi behar luketen gai garrantzitsua da Ekonomia Ituna, zerga-prestakuntzaren ikuspegitik. Zaila izango litzateke euskal herritar batek gutxieneko zerga-hezkuntza lortu duela ondorioztatzea, bere lurralde historikoan zerga gehienak biltzen eta arautzen dituen instituzioa zein den ez bada-ki.

Gaur egungo euskal hezkuntza-sistema Heziberri 2020 plan pedagogikoaren ildo estrategikoek gidatzen dute. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak garatu zuen hezkuntza-eredu pedagogikoaren marko hori, Europako esparruan hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan ezarritako berrikuntza<sup>9</sup> eta garapen<sup>10</sup> ildoetara egokitzeko. Heziberri 2020 programa 2013an eta 2014an zehar garatu zen, EAeko hezkuntza-elkarte eta aditu nagusien kolaborazioarekin eta ekarpenekin<sup>9</sup>.

Heziberri 2020 planak Oinarritzko Hezkuntza eta Batxilergoa amaitzean ikasleek lortu behar dituz-

ten oinarritzko eduki eta kompetentzia minimoak zehazten ditu, bizitzako arloetan eta egoeretan moldatzen jakin dezaten. Alde batetik, oinarritzko zehar-kompetentziak daude: bizitzako esparru eta egoera guztietan (pertsonala, soziala, akademikoa eta laborala) arazo-egoerak eraginkortasunez ebazteko behar diren kompetentziak dira, bai diziplina-arlo guztietako egoeretan, bai eguneroko bizitzako egoeretan. Beste aldetik, oinarritzko diziplina-barneko kompetentziak bereizten dira: diziplina-arloren bateko berariazko baliabideak dira horiek, norberaren errealizazioa eta garapena erdiesteko, herritar aktiboa izateko, gizarteratzeko eta enplegua lortzeko. Oinarritzko diziplinaren barruan, zazpi kompetentzia bereizten dira guztira, baina gure ikerketari dagokionez Kompetentzia Sozial eta Zibikoak nabarmendu behar dira, horien barruan jorratzen baitira Ekonomia Ituna eta hezkuntza tributarioa. Azkenik, kompetentziak ikasgaietan ere antolatzen dira. Heziberri 2020 planeko kompetentzien elkarrekiko erlazioa

Eduki eta kompetentzia horiek geroago onartu diren hezkuntza-curriculumen bidez garatu eta sakondu dira. Gure ikerketari dagokionez, bi dira interesatzen zaizkigunak: Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum eta Batxilergoaren curriculum. Atal honetan, Ekonomia Itunak bi horiei buruzko dekretuetan duen presentzia aztertuko dugu, batez ere ikuspuntu kuantitatibo batetik; hau da, zenbatekoa den bi curriculumetan foru zerga-sistema irakasteari eskainitako espazioa eta zein ikuspuntutatik egiten den. Aurrerago, kualitatiboki ere ebaluatuko dugu, Ituna 2021 inkestaren emaitzen bidez. Era berean, Eusko Jaurlaritzak foru-aldundiekin batera abian jarritako Hezkuntza zibiko-tributarioaren programa aztertuko dugu, bai eta azkenengo urteetan erakunde publikoek Ekonomia Itunaren zabalkunderako garatutako beste ekimen batzuk ere.


#### 3.1. EKONOMIA ITUNA OINARRIZKO HEZKUNTZA-ZAKO CURRÍCULUMEAN

Euskal hezkuntza-sistemaren Oinarritzko Hezkuntzaren eduki kurrikular orientatzaileak Eusko Jaurlaritzak onartutako 236/2015 Dekretuak, abenduaren 22koak, eta dagokion II. eranskinak ezartzen dituzte. Bertan, bai Lehen Hezkuntzan eta bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) etapetan eskuratu beharreko gaitasunak eta

<sup>8</sup> OECD (2021). *Fomentando la cultura tributaria, el cumplimiento fiscal y la ciudadanía: Guía sobre educación tributaria en el mundo*. Segunda edición. OECD Publishing.

<sup>9</sup> Heziberri 2020 Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza. 2014.

## HEZIBERRI 2020 PLANEKO KONPETENTZIEN ELKARREKIKO ERLAZIOA



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Heziberri 2020. Oinarizko zehar-kompetentziak eskuratzeko prozeduren eta jarreraren artxiboa. Xabier Garagorri (koord.)

ikasi beharreko edukia zehazten dira<sup>10</sup>.

Lehen Hezkuntzako etapari dagokionez, curriculumak behin bakarrik aipatzen du Ekonomia Ituna<sup>11</sup>.

- Balio Zibiko eta Sozial arloaren barruan, Lehen Hezkuntzako bigarren mailako ikasleek "Lankidetzaren komuna gastu komunetan. Zerga-sistema. Kontzertu Ekonomikoa" ikasi behar dute. Beraz, heziketa zibiko-tributarioarekin lotuta irakasten da.

Hala ere, nahiz eta Ekonomia Ituna zehazki ez aipatu, badira euskal zerga-sistema zeharka landu dezaketen beste eduki batzuk. Adibidez, Gizarte Zientzietako ikasgaiak, foru-erregimenaren ezaguerri nagusiak, gerra karlistak eta foruen indargabetzea landu behar dituzte.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan, aldi berean, Ekonomia Itunak presentzia handiagoa du, betiere Konpetentzia Sozial eta Zibiko eremua-

ren barruan. Era berean, handitu egiten da bere multidiziplinaritatea ere, arlo eta ikasgai desberdinetan lantzen delako:

- Geografia eta Historia ikasgaiak, DBHko 4. mailan: "Foruen auzia Euskal Herrian: liberalen garaipena eta foruen abolizioa. 1839ko, 1841eko eta 1976ko legeak. Kontzertu Ekonomikoa". Ez dagokio maila konkretu baten edukiari, baizik eta etapa osoan zehar era orientagarrian eta irekian funtzionatzen duen osagaia da.
- Balio Etikoen ikasgaiak, DBHko 3. mailan: "Zerbitzu publikoak finantzatzea. Euskal zerga-sistema. Kontzertu Ekonomikoa"<sup>12</sup>.
- Ekonomia ikasgaiak, DBHko 4. mailan: "EAEko zerga-sistema. Kontzertu Ekonomikoa. Kupa".

Kasu honetan, Ekonomia Ituna zeharka landu dezaketen beste eduki batzuk ere hautematen

<sup>10</sup> 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

<sup>11</sup> Curriculumek zehazki "Kontzertu Ekonomikoa" hitza erabiltzen dute.

<sup>12</sup> Euskarazko bertsioak "Zerbitzu publikoak finantzatzea. Euskal zerga-sistema" baino ez du aipatzen; gaztelazko bertsioan, aldiz, "El Concierto Económico" erabiltzen da.

dira. Geografia eta Historia ikasgaietan, XIX. mendeko foruen abolizioa eta 1978ko Konstituzioan lurralde historikoen eskubideei egiten zaien aipamena ikasi behar dira. Nahiz eta irakaslearen irizpidearen menpe geratu, suposa daiteke erreferentzia egiten zaiola Ekonomia Itunari. Bestetik, Balio Etikoen eta Ekintzaitza- eta enpresa-jardueretarako hastapena ikasgaietan, zerga-be-tebeharrak eta horiek ongizate-estatua mantentzearekin eta errenta birbanatzearekin duten harremana ikasi behar dira, heziketa zibiko-tributarioaren ikuspegitik.

### 3.2. EKONOMIA ITUNA BATXILERGOKO CURRICULUMEAN

Euskal hezkuntza-sistemaren Batxilergoko eduki kurrikular orientatzaileak Eusko Jaurlaritzak onartutako 127/2016 Dekretuak, irailaren 6koak, eta dagokion II. eranskinak ezartzen dituzte<sup>13</sup>.

Batxilergoan nabarmen areagotzen da Ekonomia Itunaren presentzia, ikasleei euskal egitura instituzional eta fiskalaren funtzionamendua ulertzeko heldutasun handiagoa aurreuposatzen zaielako. Aipatzekoa da curriculum horretan Ekonomia Itun eta Kontzertu Ekonomiko izendapenak erabiltzen direla. Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumean, aldiz, Kontzertu Ekonomiko izena erabiltzen da. Beraz, euskal hezkuntza-sistemak irizpide-sistema desberdina erabiltzen du Ekonomia Ituna izendatzeko.

- Ekonomia ikasgaietan, Batxilergoko 1. mailan: "EAEko eta Estatu espainiarreko gainerako lurraldeetako sistema fiskalak konparatzea: Ekonomia Ituna".
- Espainiako Historia ikasgaietan, Batxilergoko 2. mailan: "Foruen Aboliziorako Legea, 1876koa. Ekonomia-itunen ezarpena 1878an".
- Espainiako Historia ikasgaietan, Batxilergoko 2. mailan: "Lurralde Historikoen Legea eta Itun Ekonomikoa: 1981eko Itun Ekonomikoaren ezaugarriak eta ordutik honako bilakaera".

- Enpresaren Ekonomia ikasgaietan, Batxilergoko 2. mailan: "Enpresen fiskalitatea. Estatuko eta EAEko arau fiskalak. Estatuaren eta EAren egitekoak. Ekonomia Ituna. Kupa".

Nahiz eta Ekonomia Itunari erreferentzia espliziturik ez egin, euskal zerga-sistema zeharka jorra dezaketen beste eduki batzuk ere badira. Adibidez, Batxilergoko 1. mailako Geografia ikasgaietan EAEk eta Nafarroak Espainiako lurralde-antolaketaren barruan dituzten berezitasunak aztertzen dira. Era berean, Ekonomia ikasgaietan zergen funtzio birbanatzailea ere ikasten da.

### 3.3. HEZIKETA ZIBIKO-TRIBUTARIOAREN UNITATE DIDAKTIKO BATERATUA

2017an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiek borondatez atxiki nahi zuten ikastetxeetan hezkuntza zibiko-tributarioko programa bateratua ezartzea adostu zuten. Lankidetzarako akordio hori Iruzur Fiskalaren Aurka Borrokatze-ko Batzorde Bateratuaren barruan kokatzen da; hots, zerga-iruzurraren aurkako prebentzio-estrategia koordinatuak diseinatzeko helburuarekin Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek eraturako batzordean.

Programaren helburua gaztetatik herritarren zerga-kontzientzia indartzea eta zerbitzu publikoei eusteko konpromisoa sustatzea da. Horretarako, zerga-iruzurrak eragiten dituen bidegabekeriaren gainean kontzientziatzeko asmoa du, eta esplikatzen du herritarrek ordaintzen dituzten zergetan esker eskaintzen direla zerbitzu publikoak, eta gizarte solidarioagoa lortzen dela horrela. Bestetik, euskal erakundearen egitura, eskumen-banaketak eta finantzatzeko modua ere azaltzen ditu. Zentzu horretan, programaren txostenak bereziki aipatzen du "Ekonomia Itunaren oinarrizko eza-gutzak eta berezitasunak", ikasleek ikasi behar dituzten gaitasunen artean<sup>14</sup>.

Ekimen honen ardatz nagusia iruzur fiskalaren aurkako borroka izan arren, aintzat hartzen dira sektore publikoaren funtzionamendua, zerga

<sup>13</sup> 127/2016 Dekretua, irailaren 6koa, Batxilergoko curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

<sup>14</sup> Eusko Jaurlaritzak (2019). Zergak zertarako? Gizalegeari eta zerga-sistemari buruzko hezkuntza modulua. Eusko Jaurlaritzak.

desberdinen ezagutza eta lan praktikoa ere. Sektore publikoaren atalari dagokio Ekonomia Ituna irakastea. Bertan, ikasleek foru zerga-sistemaren berezitasunak, babes juridikoa eta jatorri historikoa, euskal erakundeen zerga-eskumenak eta Kupoaren funtzionamendua ikasi behar dituzte. Atal praktikoan, gainera, lurralde historiko bakoitzari dagokion foru-ogasuna bisitatzea ere aurreikusten da.

Eusko Jaurlaritzak kanpora atera du proiektuaren egikaritzea, 2017an abian jarri zenetik. Enpresa kudeatzaileak multimediarako baliabideak eskaintzen ditu eta ikastetxeetan bertan ematen du lehenengo ikastordua; hortik aurrerako saioak ikastetxeko irakasleei dagozkie. 2021-2022 ikasturterako, 256 ikastetxe batu dira ekimenera: 30 Araban, 133 Bizkaian eta 93 Gipuzkoan. EAEn, guztira 353 ikastetxetan eskaintzen da, DBHn edo Batxilergoan. Hortaz, ikastetxeen % 72,5a atxiki da hezkuntza zibiko-tributarioko programa bateratura.

### 3.4. BESTE EKIMEN BATZUK

Euskal erakundeek, batez ere Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak, gazteen artean Ekonomia Ituna ezagutarazteko beste ekimen batzuk jarri dituzte abian azkenengo urteetan. Hala ere, ekimen puntualak izan dira, eta denboran zehar jarraipenik gabekoak.

2018an, Ekonomia eta Ogasun Sailak umeei zuzendutako KONEKO-V bideojoko pedagogikoa garatu zuen, mugikorretan jolasteko. Jokoaren helburua, berez, Ekonomia Itunaren funtzionamendua azaltzea zen, baina, funtsean, txanpon digitalak biltzera mugatzen zen.

Bestetik, sail horrek berak "QUIZZ 41, Zenbat dakizu Ekonomia Itunaz?" txapelketa antolatu zuen 2019an UPV/EHUko, Mondragon Unibertsitateko eta Deustuko Unibertsitateko ikasleentzat. 20 galderako test bati erantzun behar zioten. Guztira 400 ikasle hartu zuten parte, eta Mondragoneko ikasle talde batek irabazi zuen bere ikasketak finantzatzeko 2.500 euroko saria.

## 4. ITUNA 2021 INKESTA: UNIBERTSITATE-AU-

### RRKO EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN EMAITZAK EKONOMIA ITUNA IRAKASTEKO ORDUAN

Ekonomia Itunak euskal hezkuntza-sistemaren curriculumetan duen presentzia era kuantitatiboan aztertu ondoren, era enpirikoan ebaluatuko ditugu lortutako emaitzak eta ezagutza-maila. Analisi hau burutzeko beharrezkoak ziren datuak Ituna Zentroak egindako Ituna 2021 inkestatik bildu ditugu<sup>15</sup>. Inkesta horretan 1.686 galdetegi egin ziren UPV/EHUko ikasleen artean, 2021-2022 ikasturte akademikoaren lehen lauhilekoan zehar, EAeko hiru lurralde historikoetako campusetan. Kopuru hori UPV/EHUko graduatan matrikulatutako ikasle guztien % 4,8ari dagokio. Inkesta lehen mailako eta laugarren mailako ikasleei egin zitzaizen –unibertsitateko ikasketetan zehar ezagutza-mailak edo iritziak aldaketarik duen aztertzeo–, eta Ekonomia Itunaren gaiarekin lotuta dauden edo gai horretarako hurbilketa bat egiten duten bost fakultateetara mugatuta egon zen; eta, haien barruan, gradu jakin batzuetara. Beraz, inkestaren unibertsoa hiru irizpide hauen arabera eraiki zen: fakultatea, unibertsitate-gradua eta ikasturtea.

Inkestak aurrez aurre egin ziren ikasgeletan, irakasle arduradunak baimena eman ondoren, eta erantzun zuten pertsonen une oro bermatu zitzaizen anonimotasuna. Galdetegiak 27 galdera zituen guztira, lau ataletan banatuta: datu sozio-demografikoak, ezagutza-maila, iritzia, eta jasotako formakuntza. Inkestaren zenbait galdera aukeratzeko, aurrez egindako antzerako ikerketa demoskopikoak erabili ziren eredu gisa.

Hala ere, jakinik ikerketa honen helburua unibertsitate-aurreko hezkuntza ebaluatzen mugatzen dela, lehen mailako ikasleek egindako inkestak bakarrik erabiliko eta aztertuko ditugu. Izan ere, lehen lauhilekoan zehar banatu zirenez galdetegiak, ikasle gehienek bukatu berriak zeuzkaten Batxilergoko ikasketak, eta ez zuten tarterik izan Ekonomia Ituna unibertsitateko ikasgaietan ikasteko. Era berean, ebaluazio hau EAeko hezkuntza-sistemari mugatuko zaionez, baztertu egin

<sup>15</sup> Erkoreka, M., García Rabadán, J. & Garro, J. (2022). UPV/EHUko ikasleek Ekonomia Itunari buruz duten ezagutza eta iritzia: Ituna 2021 inkestaren emaitzak. Ad Concordiam.

**Inkestari erantzun dioten ikasleen fakultateak eta graduak****Ekonomia eta Enpresa (Sarriko, Elcano, Gipuzkoa eta Araba):**

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza  
 Ekonomia  
 Zerga Sistema eta Administrazio Publikoa  
 Marketina  
 Negozio Kudeaketa

**Zuzenbidea (Gipuzkoa eta Bizkaia)**

Zuzenbidea

**Gizarte eta Komunikazio Zientziak (Leioa)**

Politika Zientziak eta Kudeaketa Publikoa  
 Soziologia  
 Kazetaritza

**Letrak (Araba)**

Historia

**Hezkuntza (Bilboko Hez.-Leioa, HEFA-Gipuzkoa, Hezkuntza eta Kirola-Araba)**

Haur Hezkuntza  
 Lehen Hezkuntza

ditugu hiru lurralde historikoetatik kanpo jaiotako ikasleak, bai eta Batxilergoa egin ez izana erantzun zuten inkestatuak ere.

Beraz, baldintza horien arabera, guztira 951 inkestek osatuko dute gure lagina. Kontuan izanik aintzat hartutako graduetan 2.696 ikasle zuzendela matrikulatuta lehenengo mailan 2021-2022 ikasturtean, gure laginak guztizko horren % 35,2a hartzen du, ikerketa honen fidagarritasun-maila altuaren erakusgarri. Aipatzekoa da, bestalde, hizkuntzari dagokionez, 645 galdetegi euskaraz egin zirela (% 67,1), eta 316 gazteleraz (% 32,8).

**4.1. EMAITZAK**

Ituna 2021 inkestak hainbat arlori buruzko 27 galdera zituen. Ikerketa honek egin nahi duen ebaluazioa burutzeko, formakuntzarekin eta eza-gutzarekin lotutako galderen emaitzak aztertuko ditugu. Era berean, ikerketa hau aberasteari begira, iritziarekin lotutako zenbait galdera ere aintzat hartuko ditugu.

**4.2.1. FORMAKUNTZA ESPEZIFIKORIK JASO AL DUZU EKONOMIA ITUNAREN ARLOAN ZURE PRESTAKUNTZA-ETAPAN?**

Lehenik eta behin, adierazgarria da soilik ikasleen % 64ak baieztatu duela Ekonomia Itunaren gainean formakuntza jaso izana. Laginaren ia bi heren suposatu arren, oso datu baxua da, kontuan izanik euskal hezkuntzako curriculumak derrigorrezko edukitzat duela. Gerta daiteke ikasleek ez gogoratzea edo ziur ez egotea Ekonomia Ituna ikasi izanaz, edota, irakasleen diskrezionaltasunaren arabera, gaia ikasgelan jorratu ez izana. Laginaren heren batek ez du Ekonomia Itunaren gaineko formakuntzarik jaso.

Prestakuntza espezifikoak jaso dutela baieztatu dutenei mugatuta, ia guztiek (% 92,8) Batxiler-



**1. taula. Laginaren banaketa, fakultatearen arabera.**

Fakultatea	Inkestak	%	Populazio-helburua*
Ekonomia eta Enpresa	445	% 46,7	1.028
Zuzenbidea	110	% 11,5	255
Gizarte eta Kom. Zientziak	157	% 16,5	544
Letrak	90	% 9,4	108
Hezkuntza	149	% 15,6	761
<b>Guztira</b>	<b>951</b>	<b>% 100</b>	<b>2.696</b>

\*Gutxi gorabeherako erreferentzia datua da. Ezin izan da gure unibertso zehatza ezarri, ezin izan baita matrikulatutako ikasleen datua lortu EAEtik kanpo jaiotakoak edo Batxilergoa ikasi ez dutenak baztertuta.

**2. taula. Laginaren profil soziodemografikoa.**

<b>Sexua</b>	
Gizona	% 43,5
Emakumea	% 55,6
Ez-binarioa	% 0,7
<b>Jaioterria</b>	
Araba	% 13,6
Bizkaia	% 50,8
Gipuzkoa	% 35,6
<b>Batez besteko adina</b>	18,4 urte
<b>Batxilergo-ikasketen ezaugarriak</b>	
<b>Ikastetxearen titulartasuna</b>	
Publikoa	% 51,9
Itundua	% 46,3
Pribatua	% 1,6
<b>Hizkuntza-eredua</b>	
A	% 10,4
B	% 9,3
D	% 79,1
Beste bat* <sup>1</sup>	% 0,5
<b>Lerroa*<sup>2</sup></b>	
Natura eta Osasun Zientziak	% 15,6
Giza eta Gizarte Zientziak	% 69,4
Teknologikoa	% 13,6
Arteak	% 1,5

\*<sup>1</sup> Ikerketan zehar ez dira segmentu horren emaitza espezifikoak erakutsiko, oso txikia baita ondorioak ateratzeko.

\*<sup>2</sup> Giza eta gizarte-zientzien lerroa nabarmentzen da, ikerketa honetarako hautatutako gradu gehienak ezagutza-adar horretakoak baitira.

goan jaso dute. Bakarrik % 17,9ak<sup>16</sup> erantzun du DBHn jaso duela, nahiz eta, aztertu dugun moduan, etapa horretan ere derrigorrezko edukia izan. Gerta daiteke horren oroitzenik ez izatea, igarotako denboragatik.


1.1. taula. Formakuntza espezifikoa jaso dutenak, profilaren arabera (%-etan).

<b>Jaioterria</b>	Araba	% 62,8
	<b>Bizkaia</b>	<b>% 66,2</b>
	Gipuzkoa	% 61,3
<b>Titulartasuna</b>	Publikoa	% 61,7
	Itundua	% 66,6
	<b>Pribatua</b>	<b>% 73,3</b>
<b>Hizkuntza-eredua</b>	A	% 67,7
	<b>B</b>	<b>% 71,6</b>
	D	% 62,9

kasleen jatorrizko lurralde historikoaren arabera, Ekonomia Ituna ikasi dutenen tasa altuena Bizkaian dago (% 66,2), non bi herenek baino gehiagok baietz erantzun duten. Hala ere, hurbil geratzen dira Araba eta Gipuzkoa, betiere % 60tik gorako tasarekin.


Ikastetxearen titulartasunari begiratuz gero, hezkuntza pribatua gailentzen da (% 73,3); kasu honetan, gainera, oso distantzia handiarekin gailentzeko ereduak. Hala ere, hezkuntza pribatuan ikasi duten ikasleek laginaren % 1,6a baino ez dute hartu (15 ikasle), eta ikerketan zehar oso jarrera aldakorra erakutsi dute, erantzun zuzenen diferentzia txiki batek erruz aldatzen duelako dagokion ehunekoa. Azkenik, hizkuntza-ereduari dagokionez, B ereduan ikasitako ikasleen % 71,6ak jaso du Ekonomia Itunaren gaineko formakuntza; A ereduan baino 4 puntu eta D ereduan baino ia 9 puntu gehiagok.

Printzipioz, galdera honek ezagutzari buruzko hurrengo galderen emaitzen joera adieraz diezaguke; izan ere, Ekonomia Ituna ikasi duten ikasleen tasa zenbat eta handiagoa izan, erantzun zuzenen maila ere handiagoa izatea espero daiteke. Alabaina, aurreiritzi hori ez da bete.



1.1. grafikoa. Ekonomia Itunari buruzko formakuntza espezifikoa (%-etan).

#### 4.2.2. HURRENGO DEFINIZIOETATIK, ZEIN USTE DUZU DELA EKONOMIA ITUNAREN DEFINIZIO EGOKIENA?



2.1. grafikoa. Ekonomia Itunaren definizioa (%-etan).

Ikasleen bi herenek baino gehiagok (% 67,6) zuzen definitu dute Ekonomia Ituna; hots, EAEren eta Estatuaren arteko harreman fiskal eta finantzarioak arautzen dituen tresna da. Aurreko galderan beraien hezkuntza-ibilbidean gai hau ikasi dutela baieztatu dutenak baino hiru puntu gehiago dira.

<sup>16</sup> Ikasleek bi erantzunak (DBH eta Batxilergoa) aukera zitzaizketen.

Erantzun gehien jaso dituen bigarren aukera (% 18,8) Espainiako autonomia-erkidegoen finantzaketa-esparrua arautzen duen tresna da izan da; beraz, harreman fiskalen arloan kokatzen dute Ekonomia Ituna, baina EA Eren lurralde-eremutik kanpo. Beste bi erantzunen batura ez da ezta % 9ra iristen.

Aurreko galderan aurreratu dugun moduan, ezin da lotura zuzenik egin prestakuntza gehien jaso duten segmentuen eta izandako erantzun zuzen kopuruaren artean. Horrela, Bizkaiak zuen Ekonomia Ituna ikasi duten ikasleen tasarik altuena, eta Gipuzkoak baxuena. Haatik, Ekonomia Ituna zuzen definitzeko orduan, posizioak aldatu egiten dira, eta Gipuzkoak du erantzun zuzenen proportzio altuena (% 72), eta Bizkaiak baxuena (% 64,2). Araba tartean geratu da (% 69).

Ikastetxearen titulartasunari erreparatuz gero, antzeko jarrera ematen da. Sistema pribatutik zetorren prestakuntza jaso duten ikasleen tasa altuena, baina galdera honetan erantzun zuzenen proportzio baxuena izan dute (% 66,7). Aldiz, itundutik datozen ikasleek izan dute emaitza zuzenen proportzio altuena (% 68,4), eta publikoa tartean geratu da (% 67,2).

Azkenik, hizkuntza-ereduaren arabera aztertzean, joera berdina ikusten dugu berriro ere. Aurreko galderan, D ereduaren ematen zen proportzio txikiena, baina oraingo honetan erantzun zuzenen tasa altuena du (% 68,7).

#### 4.2.3. EAEN ZERGAK EZARTZEKO ETA ARAUTZEKO ESKUMEN ETA AUTONOMIARI DAGOKIONEZ, BA AL DAKIZU ZEIN DEN EGUNGO EGOERA?

Ekonomia Itunak EA Eri (eta Hitzarmen Ekonomikoak Nafarroari) bere zergak ezartzeko eta arautzeko autonomia fiskal handiagoa ahalbidetzen dio, Estatutako gainontzeko erkidegoekin konparatuta, eta horrela adierazi du lagineko

2.1. taula. Ekonomia Itunaren definizioa. Erantzun zuzenak, profilararen arabera (%-etan).

<b>Jaioterrria</b>	Araba	% 69,0
	Bizkaia	% 64,2
	<b>Gipuzkoa</b>	<b>% 72,0</b>
<b>Titulartasuna</b>	Publikoa	% 67,2
	<b>Itundua</b>	<b>% 68,4</b>
	Pribatua	% 66,7
<b>Hizkuntza-eredua</b>	A	% 66,7
	B	% 62,5
	<b>D</b>	<b>% 68,7</b>


ikasleen % 73,7ak. Ikerketako galderen artean, hau izan da erantzun zuzen gehien jaso dituen. Era berean, adierazgarria da hau izan dela ikasle gehienek erantzun ez duten bigarren galdera: ikasleen % 7,3ak erantzun gabe utzi du.

Bestetik, bi erantzun okerrak, batuta (autonomia fiskal berdina/txikiagoa), ez dira ezta % 20ra iristen.

#### 4.2.4. BA AL DAKIZU ZEIN ERAKUNDEK DUEN EAEN ZERGAK BILTZEKO AHALMEN HANDIENA (ADIBIDEZ, PFEZA ETA SOZIJATEEN GAINEKO ZERGA)?

Ekonomia Itunaren sistemaren alderdi orokorretatik harago, bere funtzionamenduaren ezaugarri nabarmenatariko bat da foru-ogasunak direla EA Eko zerga gehienak biltzeko arduradunak. Agian galdera espezializatuagoa izateagatik, oraingo honetan erantzun zuzenak laginaren erditik behera gelditu dira: hain zuzen ere, % 44,8. Hala ere, Foru-aldundietako ogasunek aukera izan da erantzun gehien jaso dituen. Ezagutza-maila baxu hori azal dezakeen faktoreetako bat laginaren batez besteko adina da; izan ere, inkestatutako gehienek ziurrenik ez dute foru-ogasunen aurrean errenta-aitorpenik edo bestelako zerga-ordainketarik egin.

Erlatiboki hurbil, Eusko Jaurlaritzako Ogasunak kokatu da (% 33,8). Bi aukera horiek, batuta, laginaren % 78,6 egiten dute; beraz, ikasleen hiru laurdenek baino gehiagok badakite, behintzat, EA Eko lurralde-eremuan biltzen direla zergak. Hori koherentea da aurreko galderaren emaitzeekin, non ikasleen % 73,7ak bazekien EA Eki (eta Nafarroak) gainerako erkidegoek baino autonomia fiskal handiagoa dutela.



- EAEk eta Nafarroak gainerako erkidegoek baino autonomia fiskal handiagoa dute
- Autonomia-erkidego guztiek autonomia fiskal maila berdina dute
- EAEk eta Nafarroak gainerako erkidegoek baino autonomia fiskal txikiagoa dute
- ED/EE

3.1. grafikoa. Autonomia fiskalari buruzko ezagutza (%-etan).


Azkenik, oso erantzun gutxi izan ditu Estatuko Ogasunak aukerak (% 13,1), eta are gutxiago Udaletako ogasunek (% 1,6).

Gipuzkoako ikasleen % 46,3ak jakin du foru-ogasunak direla EAEko zerga gehienak biltzeko eskudunak, baina hiru lurraldeen arteko erantzun zuzenen proportzioa diferentzia estuan egon da: 2,8 puntu. Ikastetxearen titulartasunari erreparatuta, publikoan ikasitako ikasleen aukera zuzenak ia erdira iritsi dira (% 47); pribatukoek, aldiz, proportzio baxuena izan dute berriro ere (% 26,7). Azkenik, D ereduko ikasleak batezbestekotik gora geratu dira berriro ere (% 46,1), beste bi eredu-tatik 7 puntu baino gehiagora.

3.1. taula. Autonomia fiskalari buruzko ezagutza. Erantzun zuzenak, profilaren arabera (%-etan)

Jaioterria	Araba	% 78,3
	Bizkaia	% 72,9
	Gipuzkoa	% 73,2
Titulartasuna	Publikoa	% 75,3
	Itundua	% 74,1
	Pribatua	% 46,7
Hizkuntza-eredua	A	% 70,7
	B	% 68,2
	D	% 74,8

#### 4.2.5. ESAN AL DIEZADAKEZU ZEIN GARAI HISTORIKOTAN SINATU ZEN LEHENENGO EKONOMIA ITUNA?



4.1. grafikoa. Erakunde zerga-biltzaileei buruzko ezagutza (%-etan).

Gipuzkoa da, berriro ere, erantzun zuzenen proportzio altuena izan duen lurraldea, nahiz eta ez den erantzunen erdira iritsi ere egin: lurralde horretako ikasleen % 48,4ak jakin du lehen Ekonomia Ituna Berrezarkuntzan sinatu zela. Hala ere, aurreko galderetan bezala, alde txikia dago lurraldeen arteko ehunekoen artean.

Aldiz, sistema itunduan ikasi duten ikasleen erantzun zuzenek % 50a gainditzea lortu dute, nahiz eta estu. Pribatua da, berriro ere, erantzun zuzen gutxien izan duen sarea (% 40), eta publikoa tartean geratu da (% 44,1). Hizkuntza-ereduaren arabera, aurreko galderen joera mantentzen da; eta, alde txikia izan arren, B eredia gailendu da berriro, A eredia atzetik geratu den bitartean.

#### 4.2.6. HURRENGO DEFINIZIOETATIK, ZEIN USTE DUZU DELA KUPOAREN DEFINIZIO EGOKIENA?

Azkenik, inkestaren galdera teknikoenetarikoa izan arren, ikasle gehienek (% 57,1) zuzen definitu dute kupo, hots, EAEk bereganatu gabeko eskumenak finantzatzeko Gobernu zentralari egin behar dion diru-ekarpena da. Egia da Kupoaren bost urteko legearen negoziaketa eta onarpena komunikabideen arreta erakartzen duen gai eztabaidatsua dela, baina azkenengo Kupoaren metodologia 2017an onartu zenean gure laginaren batez besteko adina 14-15 urte bitartekoa baino ez zen.

Gainerako aukeren artean, bigarren erantzun hautatuena (% 18,3) Kupoaren definizio zuzenaren justu kontrakoa jasotzen duena da, hain zuzen ere: Gobernu zentralak EAERI egindako kontribuzioa da, Eusko Jaurlaritzaren eskumenak finantzatzeko. Galderari erantzun ez dioten ikasleen kopurua ere nabarmenki altua da (% 7,5).


4.1. taula. Erakunde zerga-biltzaileei buruzko ezagutza. Erantzun zuzenak, profilaren arabera (%-etan).

Jaioterria	Araba	% 45,7
	Bizkaia	% 43,5
	Gipuzkoa	% 46,3
Titulartasuna	Publikoa	% 47,0
	Itundua	% 43,2
	Pribatua	% 26,7
Hizkuntza-eredua	A	% 39,4
	B	% 38,6
	D	% 46,1

6.1. taula. Kupoaren definizioa. Erantzun zuzenak, profilaren arabera (%-etan).

Araba da, kasu honetan, ondo erantzun duten ikasleen tasa altuena duen lurraldea (% 65,1); batezbestekoarekiko eta gainerako lurraldeekiko alde handiarekin, gainera. Titulartasunari erreparatuta, pribatua gailendu da (% 60), baina marjina txikia egon da hiru sareen artean. Azkenik, D ereduan ikasitako ikasleen % 58,9ak ondo definitu du Kupo; aldiz, A eredutik zetozen ikasleen % 43,4ak bakarrik definitu du zuzen.

#### 4.2.7. LURRALDE ERKIDEN AUTONOMIA-ERKIDEGOKIN ALDERATUTA, ZER USTE DUZU, EAERI EKO-



## NOMIA ITUNAREN SISTEMAK MESEDE EGIN, BERTIN TRATATU ALA, ALDIZ, KALTE EGITEN DIOLA?

Aurreratu bezala, Batxilergoa bukatzean euskal ikasleek Ekonomia Itunarekiko duten pertzepzioaren hurbilpen sakonagoa egiteko helburuarekin, ezagutzaz gain, beraien iritzia ere aztertuko dugu. Beraz, hurrengo bi galderetan ez dira erantzun zuzenak edo okerrak egongo; aldiz, ikasleen iritziz subjektiboa bilduko da.


Lehenik eta behin, gehiengoaren aburuz (% 58,4), Ekonomia Itunaren sistema onuragarria da EAerentzat, lurralde erkideko autonomia-erkidegoekin alderatuta. Aitzitik, % 19,5ak kaltegarria dela uste du, eta beste % 10 batek bertin tratatzen duela pentsatzen du. Hala ere, adierazgarria da galdera honi erantzun ez dioten ikasleen kopurua, laginaren % 12,2ak erantzun gabe utzi baitu.

<b>Jaioterria</b>	Araba	% 47,3
	Bizkaia	% 45,7
	<b>Gipuzkoa</b>	<b>% 48,4</b>
<b>Titulartasuna</b>	Publikoa	% 44,1
	<b>Itundua</b>	<b>% 50,2</b>
<b>Hizkuntza-eredua</b>	Pribatua	% 40,0
	A	% 43,4
	<b>B</b>	<b>% 47,7</b>
	D	% 46,8

5.1. taula. Lehenengo Ekonomia Itunaren sinaduraren garai historikoa. Erantzun zuzenak, profilaren arabera (%-etan).(%-etan).

Ikasleriaren profilari erreparatu, nolabaiteko berezitasunak identifikatzen dira, baina oro har segmentu guztietan dute sistemarekiko pertzepzio positiboa, eta batezbestekoaren inguruan mugitzen dira. Salbuespen bakarra sare pribatuan ikasitako ikasleena da; kasu horretan, kaltegarria dela uste dutenak (% 46,4) onuragarria dela uste dutenak baino 20 puntu gehiago dira. Hala ere, laginaren % 1,8a bakarrik hartzen dutenez, ia ez du eraginik batezbesteko orokorrean. Bestetik, Ekonomia Itunak EAeri mesede egiten diola irizten duen ikasle-tasa altuena Araban dago, batezbestekoa ia 10 puntutan gaindituz.

## 4.2.8. EKONOMIA ITUNA MANTENTZEA NAHI AL ZENUKE?



- EAEK bereganatu gabeko eskumenak finantzatzeko Gobernu zentralari egin behar dion diru-ekarpena da
- Gobernu zentralak EAeri egindako kontribuzioa da, Eusko Jaurlaritzaren eskumenak finantzatzeko
- EAEK gainerako autonomia-erkidegoak finantzatzeko egindako diru-ekarpena da
- EAEn egindako diru-bilketa fiskal osoa da
- ED/EE

6.1. grafikoa. Kupoaren definizioa (%-etan).

Aurreko galderak erakutsitako joerari jarraituz, ikasleen gehiengo zabalak Ekonomia Ituna mantentzea nahi du (% 77,4). Aukeren arabera bereizita, % 65,5ak egungo balditzetan jarraitzea nahi du, eta % 20,9ak euskal finantzaketa-sistema forala mantentzea nahi luke, nahiz eta Estatuari Kupoaren bidez ekarpen handiagoak egin behar izan. Soilik % 9,3ak uste du Ekonomia Ituna ez dela solidarioa gainontzeko autonomia-erkidegoekin.

Era berean, adierazgarria da Ekonomia Ituna mantentzearen alde dauden ikasleen ehunekoa (% 77,4) handiagoa dela aurreko galderan EAeri mesede egiten diola edo tratatu berdina ahalbidetzen diola erantzun dutenen batura baino (% 68,4)

Segmentuaren araberako azterketa egiteko, mantentzearen aldeko bi aukerak eta kontrako beste bi aukerak batu ditugu. Kategoria guztietan, mantentzearen aldeko jarrera da nagusi. Lurralde historikoei erreparatu, jarrera hori areagotu egiten da Araban (% 85,3). Gaitzespen handiena eredu-sare pribatuan ikasi duten ikasleen artean aurkitzen dugu, baina, hala ere, ez du % 20a gainditzen.

## 5. ONDORIOAK


Ituna 2021 inkestaren emaitzen bitartez, euskal hezkuntza-sistemako Ekonomia Itunari eta euskal zerga-ereduari buruzko ikasketa-prozesuaren gaineko diagnostiko eguneratua egin dugu. Oro har, euskal ikasleek Ekonomia Itunaren gaineko ezagutza mugatua izaten dute unibertsitate-aurreko hezkuntza-ibilbidea bukatzean. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da Batxilergoa bukatu berri duten ikasleen % 64ak soilik baieztatzen duela Ekonomia Ituna ikasi duela hezkuntza-ibilbidean, jakinik euskal curriculumeko derrigorrezko edukia dela.

<b>Jaioterria</b>	Araba	<b>% 65,1</b>
	Bizkaia	% 55,5
	Gipuzkoa	% 56,3
<b>Titulartasuna</b>	Publikoa	% 57,9
	Itundua	% 56,4
	<b>Pribatua</b>	<b>% 60,0</b>
	A	% 43,4
<b>Hizkuntza-eredua</b>	B	% 55,7
	D	<b>% 58,9</b>

Bestetik, ikasleen % 67,6ak egoki definitu du Ekonomia Ituna, eta % 73,7ak badaki EAEK (eta Nafarroak) Estatuko gainontzeko erkidegoek baino autonomia fiskal handiagoa duela. Hala ere, foru-sistema fiskalaren alderdi teknikoagoak aztertzeko orduan, behera egiten du ezagutza-mailak. Soilik laginaren % 44,8ak jakin du foru-ogasunak direla EAEko zerga gehienak biltzeko ahalmena duten erakundeak, eta antzerako erantzun zuzenak izan ditu (% 46,9) lehen

Ekonomia Ituna sinatu zen garai historikoak, Berrezarkuntzak. Azkenik, ikasleen % 57,1a gai izan da Kupoa egoki definitzeko.

Ikasleen jatorriari erreparatuz, Bizkaian dago Ekonomia Itunaren gaineko formakuntza jaso duten ikasleen tasa altuena; hala ere, Gipuzkoa izan da emaitza egokien kopuru altuena izan duen lurralde historikoa, eta ondoren Araba. Beraz, ez dago harreman zuzenik prestakuntza espezifikoak jaso duten ikasleen kopuruaren eta lortutako



7.1. grafikoa. EA Eragoera (%-etan).

ezagutza-mailaren artean. Dena den, lurralde historikoen arteko diferentzia ez da oro har nabarmena. Ikastetxearen titulartasunaren arabera, ikastetxe publikoek eta itunduek antzerako ezagutza-maila erakutsi dute. Sistema pribatuak, laginaren % 1,6a baino ez zenez, oso jarrera gorabeheratsua erakutsi du; horregatik, ezinezkoa da estatistikoki fidagarriak diren konparaketak egitea. Bukatzeko, hizkuntza-ereduari dagokionez, D ereduari ikasitako ikasleak gailendu dira, nahiz eta Ekonomia Itunari buruzko formakuntza jaso duten ikasleen tasa txikiena duen ereduak izan.


Dena den, nahiz eta ezagutza-maila mugatua izan, ikasle gehienek oro har pertzepzio faboragarria dute foru-sistema fiskalari buruz. Laginaren % 58,4ak uste du Ekonomia Itunak mesede egiten diola EA Eri, lurralde erkideko autonomia-erkidegoekin alderatuta, eta % 77,4ak mantentzen dadila nahi du. Emaitza horren atzean, hezkuntza-sistematik at beste kanpo-estimulu erabakigarriak daudela interpreta daiteke (adibidez, ingurune familiar eta soziala edo komunikabideak), Ekonomia Itunaren gaineko pertzepzio subjektibo positiboa eraikitzen bultzatzen dutenak.

Ikerketan zehar, ikasleek euskal zerga-sistemaren gainean eskuratutako ezagutza-maila ahula azal dezaketen zenbait faktore identifikatu dira. Ekonomia Itunak presentzia nabarmena du euskal hezkuntza-curriculumetan, eta hainbat ikasgaiaren programaren parte da, baina, hala ere, ez du emaitza eraginkorrik sorrarazten. Izan ere, presentzia zabala izan arren, Ekonomia Itu-

7.1. taula. EA Eragoera, profilararen arabera (%-etan).

Jatorria	Lurraldea	Eragoera (%-etan)	
		Kategoria	Prozentajea
Jaioterria	Araba	Mesede	% 68,1
		Berdin	% 8,5
		Kalte	% 18,6
	Bizkaia	Mesede	% 58,4
		Berdin	% 8,7
		Kalte	% 18,4
	Gipuzkoa	Mesede	% 57,2
		Berdin	% 12,4
		Kalte	% 21,2
Titulartasuna	Publikoa	Mesede	% 56,7
		Berdin	% 9,1
		Kalte	% 22,2
	Itundua	Mesede	% 61,6
		Berdin	% 10,9
		Kalte	% 15,4
	Pribatua	Mesede	% 26,6
		Berdin	% 13,3
		Kalte	% 46,4
Hizkuntza-eredua	A	Mesede	% 62,6
		Berdin	% 8,0
		Kalte	% 8,0
	B	Mesede	% 64,7
		Berdin	% 7,9
		Kalte	% 10,2
	D	Mesede	% 57,0
		Berdin	% 10,4
		Kalte	% 22,2

na bigarren mailako eduki moduan agertzen da beti. Beraz, ebaluatu beharko litzateke zein den Ekonomia Itunak errealitatean duen inplementazioa, eta zein punturaino geratzen den irakasleen diskrezionalitate-marjinaren esku. Agian ez dute baliabide nahikorik; hortaz, Estatuko autonomia-erkidego batzuetan egiten den moduan, formakuntza espezifikoak eskaini daieke. Era berean, berrikusi beharko litzateke zein ikuspuntu eta kompetentzietatik ikasten den Ekonomia Ituna, eta maila desberdinetako ikasgaiaren artean jarraipenik edo koordinaziorik baden. Adibidez, deigarria da Ekonomia Itunak izendapen desberdina jasotzen duela Oinarritzko Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumetan, Eusko Jaurlaritzak berak argitaratutako terminologia-glosarioan jasotakoaren kontra eginez. Hezkuntza Sailaren barne-desharmonizazioaren eta Ekonomia Itunaren irakaskuntzaren sendotasun ezaren isla izan daiteke hori. Zentzu horretan, komunitate unibertsitarioak ere hobekuntza-prozesu horren



- Bai, egungo baldintzetan
- Bai, nahiz eta Estatuari ekarpen handiagoak egin behar izan
- Ez, ez delako solidarioa gainontzeko erkidegoekin
- Ez, inola ere ez
- ED/EE

8.1. grafikoa. Ekonomia Ituna mantentzearen aurreko jarrera (%-etan).

parte izan behar luke, bertan inplikaturaz, Ekonomia Ituna irakasteko estrategia koordinatua eta erakundeartekoa garatzeko helburuarekin.

Bukatzeo, Ekonomia Ituna ezagutarazteko eta hedatzeko politika publikoetan jarduten duten instituzioen arteko kolaborazioa hobetzeko aukera atzematen da, haien ahaleginak eta baliabideak optimizatzeko helburuarekin. Horren harira, zalantzan jar daiteke azkenengo urteetan ezarri diren epe laburreko ekimen puntualen eraginkortasuna, ez baitatoz bat ELGAK emandako gomendioekin: emaitza eraginkorak lortu ahal izateko, heziketa tributarioak epe luzerako estrategia izan behar du eta instituzioen konpromiso iraunkorra eskatzen du.

## 6. BIBLIOGRAFIA

Alonso, I. (2010). El concierto económico en Europa: El equilibrio entre la autonomía tributaria foral y la construcción de la Europa del futuro. IVAP.

<b>Jaioterria</b>	Araba	Bai	% 85,3
		Ez	% 10,8
	Bizkaia	Bai	% 75,4
		Ez	% 10,7
	Gipuzkoa	Bai	% 76,4
		Ez	% 14,7
<b>Titulartasuna</b>	Publikoa	Bai	% 77,1
		Ez	% 13,4
	Itundua	Bai	% 77,5
		Ez	% 12,7
	Pribatua	Bai	% 73,3
		Ez	% 20,0
<b>Hizkuntza-eredua</b>	A	Bai	% 76,7
		Ez	% 10,1
	B	Bai	% 77,3
		Ez	% 13,6
	D	Bai	% 76,7
		Ez	% 13,7

Delgado, M. L. (2001). ¿Por qué una educación fiscal? La Experiencia Educativa de la Administración Tributaria Española (Coord. Fernando Díaz Yubero). Instituto de Estudios Fiscales.

Delgado, M. L., et al. (2005). La educación fiscal en España. Documentos de trabajo (29). Instituto de Estudios Fiscales. 1-34. or.

Delgado, M. L. (2009). ¿Por qué una educación fiscal?. La Experiencia Educativa de la Administración Tributaria Española, (Cood. Fernando Díaz Yubero). Documentos de trabajo (13). Instituto de Estudios Fiscales. 11-18. or.

Erkoreka, M. (2018). The Basque and Swiss fiscal systems building processes as a source of lessons for the European integration process. International perspectives on fiscal federalism: the Basque tax system. Center for Basque Studies - University of Nevada.

Erkoreka, M., García Rabadán, J., & Garro, J. (2022). UPV/EHuko ikasleek Ekonomia Itunari buruz duten ezagutza eta iritzia: Ituna 2021 inkestaren emaitzak. Ad Concordiam.

Eusko Jaurlaritza (2015). 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

Eusko Jaurlaritza (2016). 127/2016 Dekretua, irailaren 6koa, Batxilergoko curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

Eusko Jaurlaritza (2019). Zergak zertarako? Gizalegeari eta zerga-sistemari buruzko hezkuntza-modulua. Eusko Jaurlaritza.

Garagorri, X. (koord.) (2017). Heziberri 2020. Oinarrizko zehar kompetentziak eskuratzeko prozeduren eta jarreraren artxiboa. Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa. Hezkuntza Saila.

Goenaga, M. (2016). La educación fiscal como herramienta de prevención del fraude fiscal. Presupuesto y gasto público (82). 9-22. or.

IOTA (2008). Fiscal Education for the Young - IOTA Report for Tax Administrations. IOTA.

OECD (2021). Fomentando la cultura tributaria, el cumplimiento fiscal y la ciudadanía: Guía sobre educación tributaria en el mundo, segunda edición. OECD Publishing.

Pereira, L. (2010). Experiencia internacional sobre medidas de reorganización de las Administraciones Tributarias en la lucha contra el fraude fiscal. Crónica tributaria (134). 143-178. or.

Urrutia, V. (2011). El Concierto Económico en la opinión pública. Haciendas forales: 30 años de Concierto Económico y perspectivas de futuro. Ad Concordiam. 115-129. or.